

# Australiarrak bisitan IVAPen

**B**i hizkuntza kudeatu beharrean gara EAEn, itzulpena baliatuz ez gutxitan. Australian, berriz, 400 hizkuntza baino gehiago hitz egiten dira, mundu multikulturala da zeharo, eta bertako gobernuak berebiziko erronka du hizkuntza-komunitate bakoitzari mezuak modu ulergarrian helaraztea.

JON ARIZKUN  
Hizkuntzalaria



Iragan urtearen amaieran Eusko Jaurlaritzaren Gasteizko egoitzan izan zen Australiako Gobernuaren ordezkari bat, IVAPek egiten duten testuen kudeaketa elebidunaz jakin nahirik. Aspetebet, Euskal Herrian izan ziren Lisa Zwankhuizen eta Susan Greenaway, Australiako Osasun eta Adinekoen Arreta Departamentuko kideak, eta Erika Gonzalez, Melbourneko RMIT unibertsitateko irakaslea, interprete eta itzultzailea. Egonaldia baliatuz, hitzaldia ere egin zuten abenduaren 13an Eusko Jaurlaritzaren Gasteizko egoitzan eta antipodetako kontinente-ko hizkuntza egoera bihurriaren berri eman zuten. Hitzaldi bana egin zuten hiru bisitariak, zeinek bere gaia landuz. IVAPeko Garbiñe Doval Euskara Zuzendariordearen konplimenduzko hitzen ondotik, Erika Gonzalezek egin zuen lehen hitzaldia: «Australia: urruneko kontinente, munduko zoko askotako enxe».

### Australiako hizkuntzen perspektiba

Hasi orduko, Erika Gonzalezek gogorazi zuen Australia immigrantez osatutako herrialdea dela, baina, migrazio guztiak gorabehera, 60.000 urteko kultura duela, bertakoa, eta halaxe dutela esatera: «Hau aborigenen lurra da, eta halaxe izango da beti». Erika Gonzalezek azpimarratu zuenez, «Australian, pertsona jakin batzuei ostutako lurraldean bizi gara, eta, niri dagokidanez, badakit inork ez ninduela hara joatera gonbidatu». Horixe kontuan hartzeko eskatu zien Gonzalezek entzuleei.

Giza eta hizkuntza-testuinguruaz den bezainbatean, aniztasunaz jardun zuen Gonzalezek. «2022ko datuen arabera, Australian, egun, 400 hizkuntza baino gehiago hitz egiten dira, zeinu hizkuntza eta aborigenen hizkuntzak barne. Kontinente handi zabala da: 25 milioi biztanle gara bertan; populazioaren

%50 atzerrian jaioa da, edo atzerrian jaioa du gurasoetako bat». Ingelesaren ezagutzari dagokionez, Erika Gonzalezek esan zuen milioi bat australiarrek ez dutela ingelesa behar bezala menderatzen, eta gizartean berdintasunez parte hartu ahal izateko, nahitaezko dituztela itzulpengintza eta interpretazio zerbitzuak: «Ingelesezi ongi ez dakitenen artean dira Asiatic joandako asko, adibidez, baina horiek ez ezik, baita Australia bertako Lehen Nazioetako kideak ere; hauen kasuan, ingelesa hirugarren edo laugarren hizkuntza ere izan liteke! Ondorioz, itzulpengintza eta interpretazio ikasketek berebiziko indarra dute». Eta, esan zuenez, iragan mendeko 70eko hamarkadaz gero eskaintzen dute akreditazioa –Itzultzaile eta Interpreteentzako Akreditazio Nazional Baimena du izen osoa–, 178 hizkuntzatan!

Akreditazioen artean dituzte itzulpengintza orokorra, interpretazio orokorra, osasun edo medikuntza arloko interpretazio berezitua, justizia alorreko interpretazio berezitua... «Eta akreditazio horiek lortzeko, nahitaezko dira unibertsitate ikasketak egitea, titulazioa lortzea, eta, ondoren, azterketa bat gainditzea. Ni azterketa horren zuzentzaileetako bat nauzue, eta, egia esan, ez da azterketa erraza. Zenbaitek, bi eta hiru aldiz ere egin behar izaten du, gainditu arte», esan zuen Erika Gonzalezek.

Inondik ere, egunero egiten den interpretazio eta itzulpen lana, oroz gain, soziala da, eta du bolumen handiena; esan nahi baita, justizia, osasuna, gizarte laguntzak, hezkuntza... eta gisakoetara zuzendurik dagoela gutiz gehiena.

### Hizkuntza aniztasunaren jatorria


1770. urtean, James Cook ingelesa Australiara heldu zen. Haatik, ordurako, eta europarrak heldu baino lehen, 250 hizkuntza ziren bertan, eta gutxienez 600 dialekto. «Toki askotan gertatu den be-

## «25 milioi biztanle gara Australian; populazioaren % 50 atzerrian jaioa da, edo atzerrian jaioa du gurasoetako bat»

(Erika Gonzalez, Melbourneko RMITko unibertsitate)

zala, kolonizazioaren eraginez ehunka hizkuntza galdu dira Australian. Beti esaten dugu, ez gara Australiako historiaz harro sentitzen... Bada esaera bat ere: 'Australia zuriak historia beltza du'. Eta, horren adibide, Erika Gonzalezek film bat aipatu zuen, zeina baita *Stolen Generation. Rabbit-proof Fence* (Belaunaldi lapurtua. Untxien kontrako hesia): «Guraso arraza-zuriek aborigenen umeak hartu –egiaz, bahitu–, eta misioetara eramaten zituzten, ume haien etxeetatik milaka kilometrotara, beren nortasuna, ama-hizkuntza eta gainerakoak galtzeraino. Horrek, besteak beste, ehunka hizkuntza galtzea ekarri du». Horrekin batera, Australiako Zuriak Politika ezarri zuten, hau da, Australia federatu ondoko legea, 1901eko, zeinaren arabera zuriak ez ziren etorkinen etorrera mugatzen baitzen. «Agintariak Immigrazioa Murrizteko Legea ezarri zuten, kontinente-ko demografia parametro anglo-zelten barruan mantentzeko». Eta gorago esana errepikatzeko baliatu zuen unea: «Australia zuriak historia beltza du». Erresuma Batuko eta Ipar Europako herrialdeetako bizilagunak lehenetsi zituzten. Bigarren Mundu Gerra eta gero, berriaz, Europatik 2,5 milioi lagun heldu ziren Australiara, Grezia, Italia, Malta eta beste hainbat naziotatik. Garaiko etorkinen harrera-programez den bezainbatean, migrariak bigarren mailako

Aboriginal and Torres Strait Islander persons who spoke an Aboriginal and Torres Strait Islander language at home, 1991-2021



biztanletzat hartu zituzten; asimilazio politika ezarri zen.

Migrazioak direla-eta, Mundu Gerraz gero han eta hemen gertatu diren gatazkek, berriz, immigrazio berriak eragin dituzte; errefuxiatu oldeak, alegia. Erika Gonzalezek Vietnam, Iran-Irak, Siria, Sudan eta Ukrainako gerrak ekarri zituen akordura.

### Gaur egun

Kultur aniztasuna da Australiaren ezauzgarri nagusi, eta, Erika Gonzalezen irudiko, «Commonwealth eta bateko eta besteko estatuetako gobernu sailak sekulako lana egiten ari dira, ingelesez moldatzen ez diren hiztunei itzulitako informazioa helarazteko eta, era berean, interpretazio sistema trinkoari eusteko». Adierazi zuenez, oraindik orain, Australiako Gobernuak Kultura Aniztasuna Aztertzeako Markoa garatu du, eta berori berraztertzen ari dira horretarako berariaz eraturako taldeko kideak. Horretan, bistan dena, baitezpadakoa da Lehen Nazioetako kideen egoera gogoan izatea; hau da, Australiako aborigenak eta Torres Itsasarteko biztanleak. Erika Gonzalezek adierazi zuenez, aipatu aborigenek munduko kulturarik zaharretako bat osatzen dute. Arestian esan dugunez, 60.000 urte ere badaramatzate kontinentean, baina, egun, haatik, biztanleria osoaren %3 besterik ez dira; eta azkeneko eroldaren arabera, 2021. urtean 77.000 pertsonak hitz egiten zuten bertako hizkuntzaren bat, hots, Lehen Nazioetako kideen %9,5ak besterik ez. Hiztun kopuruaren arabera, hizkuntza nagusiak dira yumplatok-a (7.596 hiztun), kriola (7.403) eta djambarrpuyn-gu-a (3.839).

Hiztun kopuru txiki horiek, berriz, kolonizazioaren eragin makurrari zor zaizkio, Gonzalezek bilorik gabe adierazi zuenez, «izugarritzko nortasun galera ekarri baitu: hizkuntza bakoitzak hiztun multzo txikia du, eta gero eta txikia-

goa, gainera!». Horrekin batera, aintzat hartu behar da hainbat hizkuntza hitz egiten dituztela Australian, eta, irakaskuntzan bertan, gela bateko 20 neska-mutileko eremu txikian bizpahiru hizkuntza ere izan daitezkeela jokoan. Horretan, gobernuaren hautu politikoa da guzti-guztiei ingeleza eskaintzea. «Australiako eremua, bestalde, guztiz da arrotza eta zabala, eta urruneko komunitateetara heltzeko zailtasunak aintzat hartzeko modukoak dira», esan zuen gure hizlari honek. «Zenbait tokitara, adibidez, helikopteroz joan behar du medikuak. Komunitate batzuek 300 kilometrotara dute hurbileneko janari denda edo supermerkatua, eta gertueko ospitalea, berriz, 500-1.000 kilometrotara». Geografiaren arabera zailtasun horrek ere erronka latzak dakarzkie australiarrei.

Erika Gonzalezek etorkizuneko ikuspegia eskainiz burutu zuen hitzaldia, Arrakala Itxi ekimenari aipamen eginez. Horren arabera, gaur egun, «Lehen Nazioetako pertsonen parte hartzea ezinbestekoa da, euren dagozkien politika ezberdinak garatzeko eta bultzatzeko. Lehen Nazioetako biztanleek pairatzen dituzten gabeziak konpontzeko, euren partaidetza politikoa ezinbestekoa dela erabaki da, eurek

erabaki eta bultzatu behar dituztela euren dagozkien erronka eta helburuak. Gobernuak, unibertsitateko ikerlariak, era guztietako elkarteak, GKE-ak... denok batera eta elkarrekin lan egin behar dugu, munduko zoko guztietatik etorri garenok ekarritako aniztasunaren altxorra babesteko eta zaintzeko, eta, aldi berean, duela 60.000 urte garaturako Lehen Nazioen kultur aberastasuna maitatu eta errespetatzeko». Horixe izan zen Erika Gonzalezek entzuleei egin zien azken mezua.

### Informazio esanguratsua helburu

Ondoren, Australiako Gobernuko bi ordezkarien txanda izan zen. Batetik, Lisa Zwankhuizen genuen, Osasun eta Adinekoen Arreta Departamentuko zuzendaria, eta bestetik, berriz, Susan Greenaway, departamentu bereko aholkulari nagusia. Biak ere komunitateekin elkarlanean ari dira, osasun publikoari buruzko informazio esanguratsua eratu eta hedatu nahian.

Lisa Zwankhuizenek Australiako hegoaldearen mapa erakutsiz ekin zion bere aurkezpenari, Adelaide, Melbourne, Sidney eta Canberra hirien kokagune geografikoak seinalatuz. «Canberra dugu hiriburua, eta, izatez, izen hori

hitz aborigenaren ingeles bertsioa da, eta 'elkargune' esan nahi du». Eta horixe esan eta Australiako Osasun eta Adinekoen Arreta Departamentuaren helburu nagusiaz jardun zuen: «Gure bisioa da osasun hobea eta ongizatea lortzea australiar guztientzat, hala oraingo populazioarentzat nola etorkizuneko belaunaldikoentzat. Gure lana da australiar guztiari osasun-sistema eta adinekoen arreta merke eta kalitatezkoa eskaintzea, osasun eta zahartze hobek eta kirol-eremua hobek izateko». Horretarako, ebidentzian oinarritutako politika, helburuak ongi zehaztutako programak, eta praktika onen erregulazioa baliatzen dituztela esan zuen.

Australiako Gobernuak 1921eko martxoan sortu zuen lehen osasun saila, garaiko gripearen A birusaren H1N1 motak eragindako pandemia handiari kontra egiteko. «Garai hartan, Australiako populazioaren ehuneko 40 baino gehiago gaixotu zen, eta 15.000 pertsona hil ziren. 100 urte geroago, osasunaz den bezainbatean, gure xedea izan zen COVID-19 pandemiari aurre egitea», gogorazi zuen Lisa Zwankhuizen zuzendariak.

Australiako sistema federatua berrantolatuta, tokian tokiko gobernuek osasun neurrien, laguntza ekonomikoaren eta txertatze kanpainen bitartez erantzun zioten egoerari. «Osasunari dagokionez, gure helburua izan zen ebidentzian oinarritutako osasun-aholkuak eskaintzea, populazioa informatzea, osasun zentroak COVID-19aren kontrako txertoaz eta abiarazleez hornitzea, eta arrisku taldeetako populazioari birusaren kontrako ahozko tratamenduak eskura jartzea», Lisa Zwankhuizenek adierazi zuenez, betiere.

## Osasunaren Aholku Batzordea

Puntu honetara heldurik, Lisa Zwankhuizen pandemiaren hasiera garaian berriaz eratutako talde bati buruz aritu zen, zeina baita Kulturalki eta

Linguistikoki Ezberdin diren Komunitateen Osasunaren Aholku Batzordea: «Informazioa azkar zabaltzeko premia larria zen, eta bestalde, askotariko hiztun komunitateak genituen, zeinek bere hizkuntza zuen, askok ez zuen ingelesaren behar besteko ezagutza... Horrela osatu genuen delako Aholku Batzordea 2020ko abenduaren 8an, hogeita bost kide partaide zirela: hizkuntza-komunitateetako liderrak, profesionalak, erakunde multikulturaletako ordezkariak, tribuetako delegatuak...». Batzordearen egitekoa zen Australiako Gobernuaren COVID-19ak eragindako pandemiari erantzuteko erabakitako neurri, aholku eta gomendioak komunitate guztien eskura jartzea, modu ulergarrian.

2023ko urtarrilaren lehenaz gero, batzordeak osasun- eta ongizate-politikak osatzeko aholkuak eta gomendioak ematen ditu osasun- eta adinekoen arreta-sare osoan. Lisa Zwankhuizenek adierazi zuenez, zimentu sendoen gainean eraikia da batzordea: «Oinarriak ditu zintzotasuna, gardentasuna, konfiantza, bene-benetako lankidetzak, elkarlana eta kodiseinua. Niri dagokidanez, esan nezake oso giro onean gauzatu ohi direla bilkurak, adiskide girokoak ere izan direla, eta komunitateek behar

dutena jaso izan dugula elkarrizketa horietan». Zwankhuizen arabera, gobernuak bere egin zuen komunitateetako konpromiso esanguratsua, eta Aholku Batzordearekin lankidetzan jardun zuen.

Inondik ere, gisa honetan, komunitateak mailarik oinarritzeko ere komunikazio jarduerak diseinatu eta eskaini ahal izateko eran ahaldundu zituzten, eta, besteak beste, osasun-hezitzaile bikulturalak komunitateekin harremanetan zuzenean jarri ahal izan ziren. «Osasuna nire hizkuntzan» zuen izena egitasmoaren atal edo konpromisoetako batek, eta Lisa Zwankhuizenek osasun-hezitzaile arabiar jatorriko elebidun baten iruzkina ekarri zuen aipura: «Esan zuen asko estimatzen zuela nola emana zen informazioa bere hizkuntzan. Esan zuen entzuna, baloratua eta berezia sentitzen zela, ikusiz arabiar pertsona bat kontratatu zutela beren komunitateko kideekin bereziki hitz egiteko». Horrek are eta adore eta kemen handiagoa eman zion delako Aholku Batzordearen lanari...

Australiako Gobernuaren Etxeko Aferrak departamentua Itzultzeko eta Interpretatzeko Zerbitzuarekin elkarlanean hasi zen, mezuak hainbat hizkuntzatarara itzultzeko, ordu artekoak

**Number of Aboriginal and Torres Strait Islander languages spoken by number of speakers (ranged), Aboriginal and Torres Strait Islander persons, 2011-2021**

Number of speakers (range)	2011	2016	2021
5.000-8.000	2	2	2
1.001-5.000	13	9	17
501-1.001	11	9	8
251-500	14	18	24
51-250	41	41	38
11-50	41	50	54
1-10	30	32	24
0	60	56	50
Number of languages spoken (1 or more speakers)	224	161	167

## «Zuek bi hizkuntzarekin egin behar izan zenuten borrokan. Guk, aldiz, 63 komunitate-hizkuntza baino gehiagotan eskaini behar izan genituen baliabideak»

(Lisa Zwankhuizen, Australiako Osasun Saileko zuzendaria)

gainbegiratzeko, testatzeko, komunitatean komunitateko hiztunari bere hizkuntzan arreta eman ahal izateko, eta, oroz gain, biztanle guztiek ere mezuak behar bezala ulertuko zituztela ziurtatzeko. «Jakín dugunez, zuen kasuan bi hizkuntzarekin egin behar izan zenuen borrokan. Guk, aldiz, 63 komunitate-hizkuntza baino gehiagotan eskaini behar izan genituen baliabideak, 32 hizkuntza baino gehiagotan egin publikitate, 16 hizkuntzatan ezarri txertatzeko klinika-zerrendaren bilatzailea, eta, azkenik, 11 hizkuntzataraz itzuli sintoma arakatzaila. Lan gaitza izan zen, baina egin genuen; eta egin genuenez gero, bide berriak eraikitzen hasi gara, eta hizkuntza-komunitateetako kideak informazioaren prozesu osoan zehar sartzen. Ikaragarritzko lana, baina onura baizik ez dakarrena». Horixe esanez –eta «eskerrik asko!» ingelestu batekin–, burutu zuen hitzaldia Lisa Zwankhuizenek.

### Ingeles argia irizpide

Aholkulari nagusi Susan Greenawayrena izan zen eguneko azken hitza. Honak, Zwankhuizenek emandako datuak berretsi, eta adierazi zuen ikaragarritzko itzulpen kopuru handia egin behar izan zutela, eta 10.000 dokumentu ere sortu zituztela: «Horrek, nahitaez, itzulpenaren kalitateari buruzko kontzientzia ekarri digu, zeren ematen dugun informazioa jendeak ulertu beharrekoa baita, eta hainbat komunitatetako hiztunek ulertzen ez badute, esan nahi du are gehiago saiatu behar dugula», adie-

razi zuen Greenawayk, eta, jarraian, COVID-19ak jo baino lehen komunitate multikulturaleekiko komunikazioa zertan zen azaltzeari lotu zitzaion.

Greenawayren arabera, ordu arte, gobernuak komunitateen epidemiologia ulertzeko interes txikia zuen. Gobernuak komunitate multikultural guztiak homogeneoak balira bezala jokatzaren zuzen –batzuk eta besteak ezberdinak direla aintzat hartu gabe, alegia–; ezertarako ere, hedabide nagusiak baliatzen zituen; komunikazio formulatiko erabiltzen zuen, batere ez originala, guztiz estandarra; batez ere estatuek eta lurraldeek hartutako konpromisoek gidatzen zuten gobernuaren lana.

Harrezkero, berriz, lan egiteko modua aldatu behar izan zuten Australian: osasun arloko praktika eta prozesu hobekak informatzeko proiektuak abiarazi zituzten, eta, horrek, nahitaez, itzulpen lana ikaragarri handitzea eragin zuen.

Susan Greenawayk itzulpen lanerako gakoak azaldu zituen, labur: «Funtsezkoa da konfiantzazko bitartekariak izatea; ezinbestekoa da ingeles argia erabiltzea; ikus-entzunezkoak –irudiak, infografiak, webguneak...– testuari gailentzea; itzulpenek gizakiak behar dituzte, eta datu eta erabiltzaileen beharretan oinarrituta egon behar dute». Aholkulari nagusiak horietatik seinalatu zituen komunikazio-estrategia gidatu duten puntuen artean.

Hori esanda, gaur egun itzulpenak nola egiten dituzten azaldu zuen Greenawayk, lau metodoen arabera: «Lehena, bi giza itzulpen txanda egitea, bi itzul-

tzaila ezberdinek eginak. Bigarrena, iturburu-testuaren itzulpen automatiko baten giza itzulpena egitea. Hirugarrena, bi giza itzulpen txanda egitea, baina ingelesezko iturburu-testua erabiliz lehenik, ingeles argiaren printzipioen arabera berridatziz. Eta, laugarrena, ‘transkreaizioa’, hau da, guztiz aditu diren itzultzaileek behar den informazioa modurik egoki eta onargarrienean ematea, ingelesez hitz egiten ez duten irakurleei zuzenduta». Helburua lortzeko –zeina baita populazio osoak mezua behar bezala ulertzea–, baitezpadakoa da komunitateek prozesuan parte hartzea, Greenawayk azpimarratu zuenez.

Gaineratu zuenez, ondoko irizpideak ere kontuan hartu ohi dituzte osasun arloko praktika eta prozesu hobeei buruz informatzeko proiektuen barruan: ko-kreaizioa –hau da, komunikazioaren edukian eta formatuan islatzen diren kultur erakuntzak kontuan hartzea–; osasun arazoa argi eta garbi definitzea; xede-audientzia erabakitzekeo datuak erabiltzea; mezularitza, edukia, formatua eta komunikatzeko bideak komunitateek berek gidatzea; eta, azkenik, gogoan hartzea ebaluazioa nahitaezkoa dela eraginkortasuna frogatu ahal izateko.

## «Ematen dugun informazioa jendeak ulertu beharrekoa da, eta hainbat komunitatetako hiztunek ulertzen ez badute, esan nahi du are gehiago saiatu behar dugula»

(Susan Greenaway, Australiako Osasun Saileko aholkulari nagusia)

Greenawayren hitzetan, pandemiak eragingandako irauliaren ondorioz, pentsaera, prozesuak eta praktikak aldatzen ari dira Australiako Osasun eta Adinekoen Arreta Sailaren baitan, eta hainbat emaitza dira horren froga eta erakusgarri: «Ingeles argia erabiltzen da eduki guztietan; datuak erabiltzen ditugu xede-audientzia –halaber, azpipopulazioak– definitzeko; komunitateekin lan egiten dugu aukerak eta oztupoak ulertzeko; eta komunitatean komunitateko bitartekariak eta komunikazio bideak erabiltzen ditugu... Bidea egin dugu, baina ez dugu lana amaitu, segitu beharra dugu», esanez burutu zuen eguneko saioa Susan Greenawayk. ●

### SUSAN GREENAWAY,

Australiako Osasun eta Adinekoen Arreta Saileko aholkulari nagusia:

«Langile publikoek dokumentuak ingeles argian ekoitzi ahal izateko, prestakuntza behar dute»

Hitzaldia egin eta biharamunean, elkarrizketan lotu zitzaizkigun Australiatik etorritako hiru ordezkariak, Lisa Zwankhuizen, Susan Greenaway eta Erika Gonzalez. Lehenengo, bisitaldiaren zioak jakinarazi zizkiguten, eta, ondoren, hizkera argiaz jardun zuten, beren eskarmentutik, bata besteari hitza emanaz.

### Zerk ekarri zaituzte Euskal Herrira?

**Lisa Zwankhuizen:** Pandemiak, esateko moduan. 2020an, Australian, munduko lau ertzetan bezala, informazioa idazteko eta hedatzeko premia gorria izan genuen; baina, gure kasuan, ohartu ginen arras komunitate ezberdinak genituela helburu, hainbat kultura, nahi beste hizkuntza... Ez genuen komunitate haietara mezurik zabaltzeko harreman-sarerik, eta, jakina, komunitateetako kideek sentitu zuten ez zeukatela behar zuten informaziorik, askok ez baitzuten ingelesezko informazioa ulertzen. Horrela, 2020ko abenduan, Kulturalki eta Linguistikoki Ezberdin diren Komunitateen Osasunaren Aholku Batzordea osatu genuen, eta sartu ziren hizkuntzak gure jokoan, gaitzaren berri emateko, txertoei buruz informatzeko eta abar.

**Susan Greenaway:** Mezuak hainbat hizkuntzatarata itzuliagatik ere, komunitateetako kideek itzulpen haien gaineko hamaika ohar egin zizkiguten. Adibidez, beti esaten ziguten itzulpenek ez zutela iltzea buruan jotzen, formalegiak zirela, eta ulertzeko modukoak izango baziren komunitateetako hiztunek bere gainbegiratu behar zituztela. Horrela, [Australiako] Itzultzaileen eta Interpreteen Elkartearekin jarri ginen harremanetan, eta Erikarekin [Gonzalez] batu ginen, elkarteko buru egiten baitzuen. Itzulpen-lanak antolatzen laguntzeko eskatu genion. Hurrena, beste zenbait herrialdetan zertan ziren jakitea komeni zitzaigula pentsatu genuen, eta etorri gara zuen artera.

**Erika Gonzalez:** Ni hemengo naiz, EHUKo irakasle eta itzultzaile, eta interprete izana Euskal Herrian; badut hemengo berri, badakit zer inportante den komunitatearentzat bere hizkuntzan entzuna izatea, bere hizkuntzan hitz egin ahal izatea, eta, gainera, badakit hemen ardura politikoa ere badela populazioari bi hizkuntzetan zuzentzea. Bestalde, aspaldi

dut IZOren berri, badakit zertan diren Terminologia Bankua, Itzulpen Memoria eta beste, eta hona etorri gintezkeela pentsatu nuen, Lisak eta [Zwankhuizen] IVAP zer den ezagutzeko, ikusteko nola ari den lanean, eta, komeni bazaigu, han aplikatzeko. 40 urteko itzulpen tradizioa du IVAPek!

**S.G.:** Aukera ikaragarria izan da hona etorri ahal izatea, eta, horretan, Erikarena da merezimendua. Zenbat eta gehiago jardun itzulpen afera hauetan, orduan eta nabarmenago da munduan herrialde gutxik gauzatu dituztela hemengo hizkuntza-politikak bezalakoak. Hala ere, gu hizkuntza-komunitateekin elkarlanean ari gara, beti haiei galdetzen edo kontsultatzen, eta hemen, aldiz, esan didate ez diotela komunitateari galdetzen. Alde horretatik, nahiko ongi ari garela ohartu gara.

### Pentsamenduak, prozesuak eta praktikak aldatzeaz jardun zenuten hitzaldian. Australiak urteak daramatza hizkera argia administrazioan sartzan. Nola egin duzue, edo egiten ari zarete aldaketa hori?

**S.G.:** Esan behar dut gu Osasun Sailari gagozkiola, ez dugula Australiako Gobernuak edo haren barruko sailek egin dutenaz hitz egiteko ahalmenik. Hori esanda, zure galderari erantzunez esango dizut baietz, pandemiak ikuspegia aldarazi zigula, erabat. Ohartu ginen itzulpen hutsak ez zuela balio, mezuak ulergarria izan behar zuela guzti-guztientzat, eta, horretarako, ingeles argia beste biderik ez zegoela. Hizkera erraza, haatik, ez da gauza berria Australian. Gobernuaren ardura da populazio osoak, bateko eta besteko komunitateetako hiztunek, mezuak ongi ulertzea. Kasu askotan, pandemia garaian bezala, informazioa teknikoak da, baina denek ulertzeko moduan zabaldu behar dugu, eta horretarako, ingeles argia da tresna.



Susan Greenaway,  
Erika Gonzalez eta  
Lisa Zwankhuizen

### Zertan da ingeles argiaren inplementazioa Osasun Sailean? Nola eramaten dute praktikara langile publikoek hizkera argia?

**S.G.:** Erronka gaitza izan da. Itzultzeko prozesua formalizatzea neke da. Langile publiko guztiek ulertu dute komunikazioa dela inportanteena, mezuak komunitate espezifikoetara heldu behar duela, eta, are gehiago, pandemia garaian hil ala bizikoa zela populazio osoak mezuak modu ulergarrian jasotzea. Langile publikoak dokumentuak ekoizten ari dira etengabe, eta ingeles argian ekoizti ahal izateko, prestakuntza behar dute, hizkera argiaren inguruan beti sortzen baitira zalantzak eta galderak. Pandemian, berriz, mezuak ez ziren gutxi: gaitzari buruzko informazioa, etxean gelditzeko agindua, inor ez kutsatzeko neurri eta gomendioak, txertatzeko kanpainak... Mezuak modu ulergarrian jaso ezik, ez zuen balio. Helburua lortzeko, komunitateetara jo behar izan genuen, haien egoera ezagutu, mezuak taxu onez itzultzeko aholkularitza eskatu, hizkuntza-komunitateetako kideei gure batzarretan parte hartzeko eskatu...

**Nola idatzi ahal dira eduki guztiak hizkera argian? Talde berezirik osatu da**

### horretarako? Batzorde berezirik bada testuak berrikusteko, adibidez?

**E.G.:** Australiako Gobernuak ez du IVAP edo IZO modukorik. Osasun Sailean Komunikazio atala dugu, eta handik kanalizatzen dugu itzulpen-prozesua. Itzulpenak egin eta, gero, komunitateei eskaintzen dizkiegu, egiazko hitzunei, irakur ditzaten, haien oniritziaren bila. Batzuetan, hiztun horiek ez dakite ingelesez; beste batzuetan, erdipurdika. Hitztun horiek esaten digute testua formalegia den, edo erraz ulertzeko modukoa. Itzultzaileontzat aldaketa handia izan da hori, orain arte ez baitziren hiztunak aintzakotzat hartzen. «Ez dira adituak! Nola emango digute, bada, aholkurik?», aditzen zen bazterretan. Baina aski izan genuen egun bat, ohartzeko itzultzaileok hiztunentzat ari ginela lanean, haiek kontsumituko zutela guk sortutako informazioa, haiek gogoan izanda jardun behar genuela itzultzen, itzulpen teoria zurrunenak bazterturik, mezuen irakurleak lehen lerroan jarrita eta komunitatea prozesuaren barruan txertatuta.

**Ageri denez, inportantea da, oso, komunikazioen hartzaileak ezagutzea, eta haien segmentazioa. Hitzaldian azaldu zenutenez, zuek datuak**

### erabiltzen dituzue helburu dituzuen biztanleak definitzeko. Nola egiten duzue hori?

**E.G.:** Erakunde multikulturaletara jota, eta haien bitartez ezagutza ezberdina duen jendea errekrutatuta. Batzuk profesionalak dira; edertasun aretoko langileak, eman dezagun. Beti, adin ezberdineko hiztunak behar dira, hizkuntza-gaitasun ezberdinak dituztenak. Era askotara bildu dugu jende hori, baita behar den tokian iragarkiak jarri ere, halako profilararen arabera hiztunak behar ditugula adieraziz.

**L.Z.:** Nik esango nuke horrela jardunda egiazko ordezkariak lortu dugula, horrek ebidentzian oinarritzen laguntzen digula. Era horretara gizendu dugu proiektua, eta ez beti betekoei galdetuz.

### Komunitateekin lan egiten duzue, aukerak eta oztipoak identifikatzeko. Zerbitzuen erabiltzaileekin bilerak egiten dituzue, edo nola jasotzen eta prozesatzen duzue feedbacka?

**E.G.:** Nik esango nuke pandemia disruptore moduko bat izan zela. Ordu arte, itzulpenak eta interpretazioa mekaniko samar egiten ziren. Itzuli egiten zen, itzuli behar zelako eta politikoki zuzena eta egokia zelako. Pandemia garaian, berriz, gobernua ohartu zen hainbat jendek, askok, ez zekiela ingelesez, eta haiek bizirik eta osasuntsu izatekotan, mezuak besterik gabe itzultzeak ez zuela balio, gauzak buru pixka batekin egin behar zirela. Jabetu ziren herrialdean halako kultura-mazedonia izanda, denok parte hartu behar genuela mezuen itzulpenak egokiak izateko, eta komunitate multikulturaletako hiztunak mezu haiek ulertzeko. Hurrena, osasun arloan aholkularitza batzordeak osatu zirenean, aniztasuna txertatu zen haietan, eta benetako bitartekari gertatu dira. ■